

Isilen etxea. Markina-Xemeingo Hilerria

Arkitektura eta ondarerako interesak ez du adierazpenik izan oraintsu arte "extra ecclesiam" gaur eguneko hilerrian. Bizkaian, hildakoentzat arkitektura garrantzizkoa da, bai Jaurerrian dauden kanposantuen kopuruagatik eta baita eraikitzeko duten kalitate-kota gailenagatik ere. Horretara, bada, ez da eguneko historiografia bakarrik kanposantuen bere katalogoetan sartzen dituenak, Administrazioak berak ere babesten baititu monumentu-izaerako elementuak bezala.



Aulestiko hilerria sarrera dotore neurriduna.
Pedro de Belaunzarane 1853an diseinatu,
Markinakoan du erreferentzi hurbilena.

Kontzeptua

Erdi aro eta Berrian zehar, hilen etxea, bizien komunitatearen espazioen arteko publikoenean dago: parrokia, komentu eta monasterioetan. Horietan egiten dira lurperaketak kalostreko eredia jarraituz: perimetroan goi-mailakoak lurperatzen ziren bitartean, erdiko patioan taldeko hilobi anonimoak edo lurreko

bertako ia bereiztu gabeko hilobiak egoten ziren. Monastegiko eremuaren berezkoa den eskema hau mimetizatzen da parrokietan ere, ekonomiaren aldetik indartsu direnak edo anaidiak bezalako jendaurreko kultuarekin loturiko elkarrekin, debozioko irudien ondoko toki faboredunak erretserbatuz.



Pedro de Belaunzaranez oso ondo interpretatu du doriko estiloaren soiltasun eta oportzionaltasuna.

Mediterraneoko munduan bai baina anglosaxoiarran aplikatu ezin den eskema honek aparteko konnotazioak ditu euskaldunen eremuan. Gure artean, ehorzketaren tradizioa oso errotuta dago jendearen pentsamoldean eta heriotzaren eta hilen gaia oso ardura handikoa da bizidunentzat.

Euskal Herrian lurperaketen berezitasun nagusia, familiaren kontzeptua etxearenak ordeztzea da, etxearen luzapena baita hilobia. Horrela, parrokiatiko hilobietan ez daude famili bateko edo besteko kideak, etxe batean edo bestean bizi direnak baizik eta hilobiak, etxearen jabetzako gorabehera eta aldaketak jasaten dituenz gero, etxebizitzaren jabea aldatzen denean, parrokiako hilobian ere aldaketa bera gertatzen da. Etxe bakoitzak, bada, toki bana zuen emana tenpluan eta etxeoandrea bere arbasoen hilobiaren gainean belaunikatzen zen elizkizunetan, aldi berean egoera egokian kontserbatzeko arduratuz.

Ikusmolde honek eraso larria jasan zuen agintari ilustratuek, hilobiak "extra ecclesiam", tenpluetatik kanpo eta herritarrengandik bazterturiko lekuetan kokatu behar izatea dekretatu zutenean. Xedapen honetako arrazoia,

herritarren osasuna zela argudiatzen zen.

XVIII. mendeko bigarren erdialdean, biztanlegoa, gero eta gehiago etenik gabe gehituz hasi zen, lurperatzeko lekuak bezala elizetako kapazitatea gaindituz. Demografiaren hazkundeak, erabat usteldu gabeko gorpuak ateratzera behartzen zuen, hauxe izanik tenpluetako hilobi askeen urritasuna konpontzeko formula bakarra, gero, gorpu hauek hezurtegitan pilatu behar izateko. Egoera hau larriagotzen zen izurriteak ziren urteetan. Tenpluetako jarioak eta osasunerako ondoriozko kalteak arrazoia izanik, Aintzinako Erregimeneko agintari ilustratuek, hilerrriak elizetatik eta biztanledun guneetatik tokiz aldatzea agindu zuten.

1787ko Carlos III.aren Errege Zedulak, hilerrriak leku "baztertu" eta "haizeztatuetan" eraikitzea agintzen zuen, baina araudi hau ez zen bete egin, ez Euskal Herrian ezta beste leku askotan ere. Jendearen pentsamoldea aurkakoa zuen. XIX. mendearen lehen herena izan zen hilobiak tokiz aldatzen hasteko garaia.

Deustuko hilerrira sarbidea.



Tipologiak

Bizkaian duten morfologiaren aldetik, hiru hilerri-mota bereiz ditzakegu:

Hilerri arkupetuak

Neoklasizismoan zehar, kanposantuak eraikitzeke arkitektoek garatu zuten tipologiaren aurrekaria, Pisa hiriko erdi aroko hilerria izan zen. Erdiko patioa estaltzen zuten arkeriez inguraturiko oin geometrikodun multzotan oinarritua zen. Hilobiak edo lurran sakondutako zulo soilak lerrotan zeuden, ataripeen itzalpean. Sarbide monumentala eta esparruaren hondoan kokaturiko kapera ziren hilerri hauetako berezko osagaiak.

Bizkaitar parroki gehienek, biztanlegoaren gehikuntza eta elizaren barruan honen ondorioz tokirik ez egotearen zioz, komunitatea lurperatzeko lekua bihurtu zen elizpea dutela gogorarazi behar da. Parrokiko biztanleen kopuruaren arabera, monumentuzko elizpeak dituzten elizak (Durango, Bilbao, Balmaseda...) eta teilapedun atari soilekoak daude. Lurperatzeko leku bezala erabiltzean bat datoz guztiak. Horretara, bada, elizetako aintzinako ataripeen arteko asko, zimiterios ezizenaz agertzen dira dokumentazioan. Hori dela eta ez da harritzekoa, banda arkupetudun kanposantua, parrokiko elizpearen

aldakia dena, XIX. mendearen lehen erdialdean zehar Jaurerri osoan gehien hedaturikoa izatea.

Bizkaiko hilerri arkupetuak, egindako obren kopuru eta baita kalitateagatik ere gailentzen dira. Zentzu honetan bada harritzekoa komunitate txikiek, arbasoen

lurperatzea xedatzean baliotsuena lortzeko gogo bizian, hamarkadetan zehar enkantean sartzeraino, obra mota honetan dirutza handiak inbertitzea. Hala ere, eraikitzeke ezaugarriak kontutan hartuz gero, tipologia honetako bi bertsiio aurkitzen ditugu: bata kultoa eta bestea herrikoa.



Galtzadetarantz zerbait biratua, garaipen-arku monumental honek ematen zion ongi etorria hilerriari. Juan Bautista de Belaunzaran, 1828.

Bertsio kultura. Eraikitzen diren uneko adierazbide arkitektoniko aurreratuenak darabiltzatenak dira. Horixe da grekar eta egiptziar tradiziorako erreferentziak dituzten Markina-Xemeingo (1850), Aulestiko (1853), Bizkaiko ehorzketa-espazioen artean kultoenetarikoa den Abadiñoko (1854), Elorrioko (1855) e.a.-eko hilerrien kasua.

Bertsio herrikoia. Hauen ezaugarri nagusia, zurezko oin zuzenetan oinarritzen diren teilapedun ataripeak dira. Parrokiko elizpearen transkripzioa nabaria da. Txikiagoak izanik, baliabide gutxiago dituzten komunitateen berezkoak dira. Bai tamainuan zein material bitxi edo apaindurazko osagaiak erabiltzean ere, bertsio kultokoak baino guztiz apalagoak dira (Berriz, Mañaria, Arrankudiaga, Gorliz e.a.).

Zerupeko hilerriak. Horma soil batek itxi egiten dituen esparruak dira, izenak dion bezala, hilobiak eta lurran sakondutako zuloak zerupean dituztela. Gaztelan dira sarriagoak.

Hilerri mistoak. Arkupea izanik ere, hau, perimetro osoaren luzeran hedatu beharrean, kanposantuaren hondoan eta, kasurik gehienetan, erdiko

kapera baten alde bietan bakarrik dutenak dira. Ataripearen azpian daude udalerriko pertsona gailenduen hilobiak. Tipologia honetakoak dira Balmaseda (1846-50), Dima, Derio (Vista Alegre), Gatika e.a.-eko kanposantuak.



Abadiñoko hilerria sarbidea (1854-1858). Rafael de Zabalaren lana.

Kokapenaren ikuspegitik, hurrengo: hauetan sailka ditzakegu:

“Extra ecclesiam” garbia. Kanposantuak, biztanleen gunetatik eta baita parrokitik ere leku haizeztatu baztertuetan egitea xedatzen zuen araudia leialtasunez betetzen dutenak: Morga, Dima, Aulestia.

Parrokira atxikiak. Sarri askotan, euren arbasoak lurperatzeko leku sakratuarekin harremanen pentsamoldearen eta Euskal Herrian inguru hauei ematen zitzaien gizarte-desberdintasuneko zamaren ondorioz, XIX. mende erdialderantz ere, oso nekez egiten da lekualdaketa. Hori dela eta, komunitate askok, hilerria, lurperatzeko betidaniko leku sakratu berean kokatu zuten. Ia beti, parrokiko hormei atxikitako hilerriak dira: Markina-Xemein, Goikolexea, Lezama e.a., modalitate hau oso ugaria izanik Iparraldean, gainerako Frantzia eta Ingalaterran.

Arkupedun espazioak ezinbestekoak dira Bizkaiko hilerrietan, haietan kokatzen baitziren ehortz-lekuak. Lasuenek eta Bidaurrek sinaturiko Elorrioko honetan bezala.



Dimako hilerriko kapera nagusia, tradizio grekolatinoaren eredu bat islatzen, 1841.



Arkupedun hilerriaren adibide herriko bat, Berrizeko hilerria da, hain berezkoak dituen zurezko oin zuzen eta estaltzeko teilapearekin.

Hilerriko espazioen funtzioak

Lehen hilerrietako arkupeak, lurrari edo hormetan hartzen zituen ehorzketak, hilobi erara. 1860ko hamarkadan, Isabel II.aren erregetzan, ehorzketako espazio neoklasiko mota honek krisialdia jasan zuen, hilobiak nekosten artean eratzen diren loragunedun eredu hedatzen zen bitartean. Loragunedun erdiko patioak hartu zuen

protagonismoa, hilobiak eta panteoiak han kokatu ahala gero eta handiagoa izanik. Loragunearen garapen hau eta oroitzapeneko monumentuak bezala egindako mausoleoena aldi berekoak ziren, hilerrien irudia funtsean aldarazi eginaz. Mausoleo hauek onestea eta hedatzea, komunitate bakoitzean gehien gailentzen ziren familien aldetik gainerako hobi komunitatik bereizteko leku faboredun desberdinak

bilatzean ulertu behar da.

Kanposantu batean funtsezkoa denaren arteko bat, kapera da. Kanposantu askoren kokapena, aurretiaz baseliza bat bertan izatearen baldintzapean dago (Otxandio, Elorrio, Aldeacueva ...). Bertakoentzat, hilerria baselizaren inguruan egiteak, praktikan, "lur sakratuan" lurperatzeko tradizioarekin jarraitzea



Elizaldeko hilerria (Abadiño). Arkupedun hilerriaren adibide bat era landuan. Loragunea, hasieran garbia, ehorts-lekuez inbaditua izan dela ikusten da.

suposatzen zuen. Ardura honek ez du beste arazo garrantzitsu bat ezkutatu behar: lehendik zen eraikin bat aprobetxatzearen ondoriozko diru-aurrezteak. Bestalde, hilerriak, biztanleengandik bazterturiko zerupeko tokietara lekualdatzeak, askok aldapan kokatzea suposatu zuen. Honetara, goikaldetik burutza izanik, kaperari ez bairik gabeko protagonismoa ematen zitzaion (Balmaseda, Dima, Berriz).

Beste elementu bat, hilobietatik ateratzen diren hezurak pilatzeko hezurtegia da, hilobietan berriro lurperatu ahal izateko beharrezkoa dena. Tanatorioak ere, lurperatu aurretik gorpua senideen aldetik zaintzeko diren gelak, ia beti egoten ohi dira. Hilerri garrantzizkoenetan, harrerako lekua den atezaintza ere dago, non, bulegoa eta lurperatzailearen biltokia baitaude.



Vista Alegrekoan, Enrique de Epalzak erdi aroko arkitekturaren proposamen erromanikoak interpretatu zituen; horretara, apaindura eta egitura garrantzi berekodun espazioa sortu zuen.



Abadiñoko San Trokaz eliza ikusgarria habearte motakoa da eta estribuen artean kapera altuak ditu, zeinak barrurantz begira dauden. XVIII. mendeko barroko estilokoa da.

MARKINA-XEMEINGO HILERRIA

Jasokundeko Andra Mariaren elizako aldameneko batean dago Markina-Xemeingo hilerria, Euskal Herriko kanposantu arkupetuaren adibide argienetariko bat. Kanposantua, 36 x 25 metroko errektangelu bat da, perimetrozko horma batek eta parrokiko Ebanjelioaren aldeko hormapikoak itxi egiten dutela. Markinako harrobietako karezko harlandu gris nabariak egin dago.



Markinako hilerrira sarbidea, greko-erromatar inspirazioko Neoklasizismoa eta egipziar elementuen arteko sintesi egokia da.


Alderdien arteko gailena, Markina-Xemeingo hilerria Euskal Herriko jatorrizko eta ederren artekoa bihurtzen duena, bai kaperaren fatxadan zein sarbideko atean erabiltzen den estilo hibrido da. Biek dute eskema bera, formulazio dorikoan egiptiar eta greziarren arteko sintesi egokian. Erdiko gurutze batek errematatu eta ertzetan akroterioak dituen zutabe dorikoen gaineko frontoi hirukia duen konbinazioa. Aldamenetan, bere siluetek egiptiar pilono bat gogorarazten duten horma trapezoidalak daude. Hilerria, lauak eta oinarririk gabekoak izanik, alde bitarako teilatudun ageriko zurezko egur-armadura eutsiz, zutabe dorikodun patio arkupetua da. Bere itzalpean lerrokatzen dira hilobiak, angeluzuzeneko hobi soilak, bitarteko pasabide batek banandutako bi

lerrotan antolatuak. Esparruan bizi den solemnitatzeko giroak ponpeiar etxe baten patioa edo etxebizitza helenista baten peristiloa gogorarazten digu. Erabat despejatu den loragunean, Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais elkarte sortu zuenaren iloba Jose Maria de Munibe Peñafloidako XI. kondearen zenotafioa gailentzen da. Bere diseinua, tankera multzoaren gainerakoa bezala izanik, kaperako itxuren errepikapena da. Angeluzuzeneko oinekoa, angeluko akroteradun frontoi hirukiak ditu eta lau kaskoetako gangaz estaltzen da. Sarrera nagusia, oinetan dago. Denboraren poderioz zenbait sarbide laguntzaile ireki behar izan ziren, bata, kaperaren aldetik parrokiarekin komunikatua, beste hirurak, hilerria hedatzearen ondorioz, Iparraldean ireki izanik. Hondoan dagoen

kaperak, esparru osoan gailenduz, multzoaren ardatz nagusia mugatzen du sarbidearen ondoan. Distiloa da, angeluzuzeneko oinekoa, sare soil batez babestua eta gaurdinera estalia.

Markina-Xemeingo lurperatzeen faseak sailkatzen baldin baditugu, lehen une batean, mausoleo honen ondoan, lekuko famili gailenen arteko zenbaiten hilobi bakar batzuk baino ez zeuden. Espazio hau hautatzearen arrazoia, kalostreetan errenkatzen

Markinako hilerriaren oinplanoa, Mariano Jose de Lascurainek 1850ean taxutu zuen arkupedun espazio ikusgarria.



ziren herritar xeheen lurperatzetatik desberdintzea zen, noski. Denbora igaro ahala, espazio arkupetu estalia txikia gertatu zen, lurperatze xeheak, bigarren fase batean, estali gabeko aldera sartu baitziren. Paseabideek banandutako aldeetan eratzen diren panteoien erabilera aski modernoa da. Guda Zibilarekin batera, lurperatzeen hirugarren fase batean sartzen gara, hilobiak, hormek mugatzen duten perimetroaren kanpoaldera, lpar eta Ekialderantz tokiz aldatu baitziren.

Kanposantuaren kokapena, parrokira atxikita, nahiko sarri errepikatzen da Jaurerrian: Lezama, Abadiño, Goikolexea, e.a., herritarrek lurperatzeko betidaniko tokia mantendu nahi izatearen ondorioz. Markina-Xemeingo eguneko kanposantua dagoeneko lursailan estali gabeko hilerri bat zen, horma soil batez itxia, non, 1811tik aurrera, ehorzketak egiten zirela. Ideia ilustratuen garaipenaren ondorioz eraiki zen lehen kanposantu honetako data ikusita, Markina, Jaurerriko udalerrien artean, erregearen aginduek betetzen lehenetarikoa dugu.

Egunekoa 1850ekoa da, Madrileko Iparraldeko hilerrian eta geroago Bilboko Mallonakoan aplikatu zen

hilerri arkupetuaren eskema jarraituz Mariano Jose de Laskurain gipuzkoar akademikoak egindako proiektuaren arabera. Jose de Sodupe eta Pedro Jose de Loyola kontratugileek burutu zuten eraikintza. Obrak amaitzeko kaperan grabatzen den data 1851 da.

Egilea, Bizkaian lanean jardun zuten

arkitekto neoklasikoen hirugarren belaunaldikoa da. Isabeliar aldirian neoklasizismoa zabaldu zutenak ziren. Izan ere, orduan, arabiar, egiptiar edo Mendebaldeko Europan hedatutako erdi aroko berezko proposamenak ere konbinatu edo greziar-erromar neoklasizismoak zabalean hedaturikoak baino nahiago ziren.



Monumentaltasuna eta soiltasuna dira, Markinako hilerria ondoen definitzen duten ezaugarriak.

Baina, Laskurainen jatortasuna, kanposantuaren sarreran eta kaperaren fatxadan greziar eta egiptiar elementuen bategitean dago. Greziar tradizioko mintzaera arkitektonikoa frontoi hirukian, zutabe dorikoetan eta hilarri atikoak gogorarazten duten akroteretan daude, guztia egokitasunez konbinatuta egiptiar pilono bat gogorarazten duten itxura ataludatu trapezoidaletan. Egiptiarren adierazbideek betikotasunari aipamen zuzena egiten dutenez gero, arkitektura hau egokienetarikoa dugu ehortzeko inguru baterako.

Bestalde, hilerriak, itxurako mintzaera kultoen erabilera bikaina konbinatzen du: multzoaren diseinu orokorra, alde arkupetu edo kaperaren euskarriak, Herriko bertako konponbidearekin. Herrikoia dena, ataripearen teilapean zuraren erabilera dugu, non, ziur asko, parroko aintzinako hilerriaren materialak berraprobetxatu baitziren.



Hobiratze "extra ecclesian" egiteak ez du alde batera uzten dimentsio sakratua, Markinako honetan ikus daiteken bezala. Zutabeek definituriko konposizioko erritmoa iradokitzailea da oso.